



IRAGANERA BEGIRA

Azpeitiak herri-gutuna jaso zuela 700 urte beteko dira hilaren 20an. Hainbat ikuspuntu eskaintzen duen urtemuga 20



0 tik 18 urterako ESKAINTZA

0 - 3 haur ikastolan ORDUTEGI ZABALA - 7:30 -19:30

IKASLEA ARDATZ

BAKARKAKO JARRAIPEN HURBILA

EUSKALDUNA - EUSKAL KULTURAN OINARRITUA

KOOPERATIBA, GURASOENA ETA PARTE HARTZAILEA

EUSKAL HERRIKO ESKOLA NAZIONALA BULTZATZEN

ZATOZ IKASTOLA EZAGUTZERA

Otsailaren 11ean atek zabalik arratsaldeko 17:00 etatik 19:00 etara

Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinalaztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 114.a (2010eko otsaila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730 792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerio
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Xanti Rodrigiez
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak (erakunde
publikoak)



Uztarriak
Bai Euskarari



Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik

2010EKO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Karnabaletan
mozorrotuko al zara?
Zertaz? **13**

mamia

Haritz Seguro.
Hamar urtez sokamutil
ibili eta gero,
karnabaletan jantziko
ditu galtza zuriak
azkenekoz **04**
Elurra oztopo. Baserri-
bideak garbitzeaz
ardurutzen dira **24**
Klik! Antxieta
abesbatzak mende
laurdena beteko du **16**

jakiteko

Marirox Azkue.
Erdikalean izan duen
jostailu dendan lana
gogotik egin du **34**


Ba al dakizu azpeitiko auzoetako talde
eragileak indarrak batzeko saiakera
egiten dabiltzala? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldea orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberría, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

HARITZ SEGUROLA

sokamutila

“dena uzteko asmorik ere ez daukat”

Orain dela hamar urte ametsa bete zuen lehen aldiz soka jarri zenean. Aurtengo Karnabaletan jantziko ditu azken aldiz galtza zuriak. 📧📧 Mailo Oiarzabal

Aurtengo san-sebastianak ez dira nahi bezain gozoak izan Haritz Segurola *Xague*-rentzat, baina San Sebastian eguneko eguerdi partean finfin ari da prestatzen, hamabietan zezena sokatik ateratzeko. Ondo ezagutzen du sokamutilaren ofizioa, hain gustukoa duen jarduna. Karnabal festatan erretiroa hartzekoa da; ahal badu, irteera guztiak egin nahi ditu, igande eguerditik astearte iluntzeraino.

Uzteko penatan, ala gogoa ere bai?

Izugarritzko penarekin. Baina, ja edadean ere aurrera goaz, eta... Bakoitzak jakin behar du zertaraino den, nahiz eta sasoi ondo egon. Beste kideekin ja urte tarte handi xamarra daukagu; eta

beste azpeitiar mordoxka bat ere badago, irtetea nahi duena, eta gazteei ere utzi egin behar zaie irteten.

Erreleboa emate aldera ere bai, orduan?

Bai, baina pena izugarriarekin.

Karnabaletan izango duzu agurrekoa. Zer egunetan?

Karnabaletan irteera denak egiteko asmoa dut, hartara amaiera polit bat emateko. Sasoi puntu onean gaudenez, hori ere aprobetxatu nahi dugu.

Zenbat irteera, denera?

Igandea, astelehena eta, asteartean, goiz eta arratsalde. Lau, denera.

Irudikatu al duzu azken irteera? Nolako izatea gustatuko litzaizuke?

||| **DATUAK** |||||

||| **Jaio.** 1972ko irailaren 6an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Legazpi. ||| **Lanbidea.** Kamiolaria.

Normala. Urtero bezalaxe egingo dugu. Bukatzen denean, urtero bezalaxe, afaltzera joango gara; han adarjotze pixka bat-eta izango dugu, baina bueno. Ezer berezirik behintzat ez, normal-normal, hasi ginen bezalaxe bukatu, eta... Lagunartean.

Sorpresarik ez al duzu espero?

Ez, ez dut uste. Gero, urtean egingen dugu afari bat, Loiola hotelean. Han igoal opariren bat-edo egingo didatela pentsatzen dut. Baina, gainontzean, egunean bertan, normal-normal.

Gogoan al daukazu sokamu-

til bezala atera zinen lehen aldia?

2000. urteko Jai Karnabalean izan zen, eguerdian. Poz izugarria izan zen. Urteetan nenbilen, irteko gogoarekin, baina arazo batzuk gorabehera ezin izan nuen. Azkenean lortu nuenean, poz izugarria izan zen.

Amets bat bete al zenuen, egun hartan?

Ba nik uste baietz, txiki-txikitatik neukan ametsetakoa bat zela, eta behintzat lortu nuen.

Zergatik hasi zinen sokamutil? Zerk bultzatu zintuen?

Ez dakit. Nik uste dut azpeitiar gehienok, txiki-txikitatik hasten garela sokamuturreko giro horretan. Sokamuturra gustatzen baizaizu, beti fijatzen zara sokamuti-



lekin eta giro horrekin. Ambiente horretan bizi zarenez, nik uste hortik etortzen dela zaletasuna.

Dohai fisikoak alde batera utzita, zezenaren aurrean ibiltzen ere jakin beharko da, ezta, sokamutil ibiltzeko? Zu asko ibiltzen al zinen?

Bai, txiki-txikitatik asko ibiltzen nintzen, umeentzako zezen txikitatik hasita, pixkanaka-pixkanaka. Eta Azpeitian bakarrik ez: sanferminetan entzierrotan, eta herri askotako sokamutil eta zezenetan.

Praktika behar da, ezta?

Bueno, bai. Gu, berriren bat harterakoan, batik bat horretan fijasen gara, zezenean pixka bat ibiltzen dakienarekin. Edozer arazo baldin badago ere, jakin egin behar duzu, zezena nola kendu eta, fisikoaz aparte.

Hamar urte hauetan, zer une gordetzen dituzu berezi edo onen bezala? Zerekin geratuko zinateke?

Unerik onena bezala, lehen aldiz irten nintzen urtea daukat; esan dudan bezala, nire ametsetako bat egi bihurtu bainuen. Bestela, urtero poz eta ilusio berdinarekin segitu izan dut.

Eta esperientziarik txarre-na?

Txar-txarrik ez daukat. Anekdotatxo bat daukat: aurreneko aldiz sokan aurrean atera nintzenean,

zezenak aurea hartu zigun, plazara iristerako. Hor katxondeorako bidea jarri genuen... Txarrik ez, anekdotatxo bat, anekdota 'historikoa'.

Beti aipatzen duzue sokamutilen artean izaten duzuen giro ona. Hala al da? Pikerik-eta ez al dago?

Bai zera! Ikusgarria da zer giro on sortzen den. Ez gara koadrila batekoak edo betitik ezagutzen garenak, adinean ere diferentziak badaude, baina ikusgarria da zer giro on daukagun, denon artean. Ez dakit zeren zera izango den, baina beti izan da horrela.

Lagunarte hori faltan botako al duzu?

Beno, faltan beti botako dut zerbait, baina dena uzteko asmorik ere ez daukat; hor ibiliko gara. Lehengoak ere asko hor ibiltzen dira; afariak-eta ere egiten ditugu, elkartu egiten gara... Giro on hori ez dut uste asko galduko dugunik. Nahiz eta zuriz ez jantzi, harremanari eusteko asmoa dut.

Beteranoak beti inguratzen direla sokaren bueltan, ezta?

Bai, eta gainera eskertu egiten dira beteranoen aholkuak, eta hauen laguntza. Nik ere, orain etorriko diren berriei eta gelditzen direnei, daukadan esperientzia pixka hori emateko prest nago, nahi duenarentzat.

Legazpin bizita, moldatzen al zara, hemengo jai egune-tan zezenera etortzeko?

Autonomo bezala lan egiten dudanez, jaiak-eta gutxi gorabehera neuk antolatzen ditut.

Hemendik aurrera ere bai?

Bai, bai. Sansebastianak eta karnabalak behintzat, niretzat... Gauza naizen bitartean, hor izango naiz, 'lata' ematen.

Eta, zezenak barrera atzetik ikusiko dituzu, ala aurrean jarriko zara?

Aurrean ibiltzeko asmoa ere badut oraindik. Nahiz eta edadean aurrera joan, neure burua gai ikusten dut oraindik zezenen aurrean ibiltzeko. Hor ibiliko gara.*

||| **MOTZEAN** |||||

SOKAMUTURRIK EDERRENA?

Astearte Karnabal goizekoa.

IBILBIDEKO ZATIRIK ONENA?

Irteerakoa, Erdikalekoa.

SOKAMUTIL BAT?

Bat esatekotan, Zapatari.

ZEZEN BAT?

Bi: 'Kastro' eta 'Korujo'.*

Ospakizuna eta aldarrikapena

Ospakizunak eta aldarrikapenak askotan joan dira batera gizartearen. Ez dira gauza bera baina historiako gertakizunen ospakizunak beti izan dira aitzakia ona ideia eta errealtate desberdinen aldarrikapenak egiteko.

Aurten Azpeitiko hiribilduaren 700. urtemugaren ospakizunak ere ez dauka zer hone-tan salbuespena izan beharrik. Beste leku batzutan ere ospakizunak beti izaten dira aukera ona mezu eta hausnarketa berriak gizar-teari helarazteko.

Horrela, herrialde bakoitzaren egun eta urte markatueta agintariak herritarrei beren ideia eta proiektuen berri ematen diete, gizar-teak jaso eta hausnartu ditzan. Herriaren gobernuaren erregimenean bizi garela abia-puntutat hartuta, aurreko ohitura osasungar-ria da denontzat, eta komenigarria. Ez dugu ahaztu behar ez dutela soilik agintariak egin behar gizar-teak behar dituen aurrerapauso eta ideia tronkalen inguruko hausnarketak, baizik eta gizar-te guztiak parte hartu behar duela beraietan.

Herritarren parte-hartzea beti izan da be-harrezkoa baina gutxitan gauzatu da. Batzue-tan erakundeek ez dituztelako behar diren bi-deak ireki eta besteetan jendeak ez zuelako uste bere iritzia kontutan hartzen zenik. Hau gure herrian herritarren mahaiekin aldatu da eta aurrerapauso itzela izan da.

Aurrekoak herritarren iritzia jasotzea posi-ble egin du eta gure herri nortasuna sendo-tzeko aurrerapausoak eman dira.

Mahai-inguruak eta hitzaldiak

Udalak mahai-inguruak eta hitzaldiak antola-tu ditu urte osoan zehar hiribilduaren urtemu-ga aitzakiatzat hartuta. Hitzaldi hauetan herri-tarren parte-hartzea handia izatea komeniga-rria litzateke, denok gure herriaz zerbait gehiago ikasteaz gain aukera ematen digula-ko kanpoko adituekin gure ideiak partekatze-ko eta ondorio aberasgarriak ateratzeko.



■■■■■■■■■■markel mendizabal■■■■■■■■■■

■■■Urtemuga hau ea ez den ekitaldi ofizial eta jenderik gabeko mahai-inguru eta hitzaldietara mugatzen

Baina, ez da hori bakarrik urtemuga honek ematen digun aukera. Gure herri nortasuna aldarrikatzeko ere parada polita eskaintzen digu. Herri kirolak, euskara eta euskal kultura eta beste hainbat gairen inguruan antolatuko diren mahai-ingurueta parte hartzerak animatzen zaituztet, gure herri nortasunaz jabetuta denok egin ahal dugulako zerbait bera galdu ez dadin. Baina, horrek lehendabizi berau ezagutzea eskatzen du.

2010. urteko urteurren hau antzua izan ez dadin parte-hartzea beharrezkoa da eta, urtemuga honen esanahiaren inguruan izan di-tzakegun errezeloak alde batera utzita, uste dut gure nortasuna aldarrikatu eta herri proiektua adosteko aukera ona eskaintzen digula. Ea ez den urtemuga hau, beraz, ekital-di ofizial eta jenderik gabeko hitzaldi eta mahai-inguruetara mugatzen! Ospatu bai, baina aldarrikatu ere bai! Ea horrela den!✱





HAZI, HEZI ETA IKASI



IRAURGI

ikastetxea



0 urte

hartzaindegia

1 eta 2 urte

Bi eskaintza:

- hartzaindegia
- gela arrunta
(goizez
arratsaldez
goizez eta arratsaldez)

3, 4 eta 5 urte

Bi eskaintza:

- gela arrunta
- gela + hartzaindegia
(hartzokoa)

gela arrunta: 09:00-12:15 / 15:00 - 17:00

hartzaindegia: 07:30 - 19:00 (iraila, gabonak, aste santua eta uztaila barne)



0 - 18 urte arteko
hezkuntza eskaintza
zabala

ZERBITZUAK

1) AUTOBUSA
- Herri barrukoa
- Ingurukoa

2) JANGELA
- Gure sukaldean
prestatutako janaria

3) RETENA

4) ESKOLAZ KANPOKO
EKINTZAK



IRAURGI IKASTETXEA
GABON JAIALDIA 2009-10



informa zaitez 943 81 02 10 (DBH) eta 943 81 63 80 (HH)

Eskubideen zozketa

7

8.294. Ez, ez nuen zenbaki hori. 58.588. Hori ere ez. Baina ez nintzen arduratu. Inoiz ez dut zorterik izan jokoan, eta zaila da oparitutako loteria dezimo bat izan, eta bera tokatzea. Aspaldi erabaki nuen Espainiako Loteria Nazionalik ez nuela ordainduko, eta oparitutakoarekin saria irabaztea handia litzateke. Pentsa zer zorte txarra dudan, norbaitek loteria hori oparitzeko ordaindutako euro horiek kobratzea tokatu, eta kobratu ondoren, bost minuturen barruan, galdu egin zitzaidala 20 eurokoa! Esaera zahar batek dioenez, maitasunean izango omen naiz zortedun.

Baina Gabonetako loteria egunak pasatu ondoren, Azpeitian izan da beste zozketa egunik. 74a ez zen nirea; 352a gertuago zegoen, baina hori ere ez nirea; 304a keba; 370 hori ere ez; 345a... horietako inor ere ez zen nirea. Hilabeteren buruan "loteria" tokatzeko hirugarren aukera zen. Nire zenbakia, erosi gabea zen, ez zitzaidan tokatu; nirea zen. Eta hiru zifra zituen: 3-9-9. 399a, hain zuzen. Azken zozketa horretan 100.000 eurotik gora balio zuten loteria tokatzen zen, baina, hala ere, loteria. Ni hor ere ez, ordea, zortedun.

Ez dago erraza, gaur egun, etxea erostea. Beno, zuzen dezadan esaldia; ez da erraza, gaur egun, langile normal batek duen soldatarekin etxea erostea. Ez behintzat 30-50 urte bitarteko hipotekarik gabe. Askok eta askok etxe txiki bat erosteko, amets asko alde batera utzi, eta urte luzeak bankuan ditzuten zenbakiei begira pasatzen dituzte. Aterpe bat izateko, bankuarekin ezkondu eta hilero soldataren zati handia ohe bat, sukalde bat eta bainu gela bat izateko. Ez dut jauregirik nahi, ez dut 100 metro koadroko etxerik nahi. Soldata normal batetik ordaindu daitekeen txoko goxo bat, besterik ez.

Laster, beste zenbaki bat bidaliko didate. Zenbaki hori etxea alokairuan hartzeko izango da. Han ere izango da nire zenbakia; esku-



ihintza agirretxe

III Ez ditzagun ahaztu; ez dezagun ahaztu giza eskubide bat dela norbere aberrira itzultzea

bidea izan ba omen dut eta etxe bat izateko. Eskubidea bai, aukera, han ere, auskalo, 10etik batekoa edo.

Aberria eskubide

34. Beste zenbaki bat; ez dira nik ditudan urteak. Oraindik ere ez naiz hirugarren hamarkadara iritsi. 34 urte dira gugandik ez hain urrun, etxera bueltatu ezinda daudela 200.000 mila lagun. 200.000 mila, 34 urtez. Urte horiek 34, hain justu, pasatu dira sahararrak Arabiar Errepublikako Demokratiko Sahararra aldarrikatzen hasi zirenetik. Marokok beraien aberritik bota zituztenetik. Otsailaren 27an, beste behin, aldarrikatuko dute. Urte horiek guztiak milaka sahararrek Tindufeko (Algeria) errefuxiatu kanpamentuetan darmatzate. Etxera ezin itzulita, aberria ezin ikusi. Ezin etxera itzuli, aberria ezin ikusi; baina duintasunez beteta bizirauten dute desertuaren bazter hartan. Bazter batean daude, bai,

baina ez ditzagun gehiago baztertu.

Ez ditzagun ahaztu; ez dezagun ahaztu giza eskubide bat dela norbere aberrira itzultzea. Bakean eta duintasunez.✱

5

2

3



saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...



www.iragarkiaburrak.com
txintxarri.iragarkiaburrak.com
otamotz.iragarkiaburrak.com
soraluze.iragarkiaburrak.com
elgoibarren.iragarkiaburrak.com
bidasoamedia.iragarkiaburrak.com
ukberri.iragarkiaburrak.com
oarsoaldeko hitza.iragarkiaburrak.com
tolosaldeko hitza.iragarkiaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkiaburrak.com
urola-kostako hitza.iragarkiaburrak.com
irutxuloko hitza.iragarkiaburrak.com
goierriko hitza.iragarkiaburrak.com
11barri.iragarkiaburrak.com
baleike.iragarkiaburrak.com
geugasteiz.iragarkiaburrak.com
etakitto.iragarkiaburrak.com

milaka bisita egunero

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Euskararen sua, bizi-bizi.

Joan zen hilean 'Behera' jarri genion, su egurraren eskaintza gaztelaniaz egiten zuelako. Uztarrria-ri kaso egin dio, ordea, saltzaile honek. Bejondeiola! 📎 Uztarrria

**BEHERA.** Mahaiak, aulkiak eta euskara salgai.

Mahaiak eta aulkiak ez ezik, euskara bera ere salgai jarri du enpresari honek. Euskararen normalizazioa lortzeko bidean atzera pauso nabarmena. 📎 Uztarrria*



Hodei Mendinueta.

ESANA DAGO

III “Goian jokatu nahi nuen, baina ezin nuen. Gerora ulertu dut denbora behar dela prest egoteko. Baina amorrazio handia neukan”

HODEI MENDINUETA
Real Unioneko jokalaria

III “Karrozaren diseinuarekin jendea oso kritikoa dela esan didate eta horrek kezka sortzen dit”

NAIARA GOENAGA
Sansebastianetako
karroza diseinatu du

III “Hamabi urteotan egindako ibilbidearen isla da irabazitako txapela”

IMANOL BADIOLA
erremontista



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guraso eta jarraitzaile (I)

Azkenaldian, herriko gazte eta haurren larunbat goizetako kirol ekintzetan, txapelketa edo lehiaketa ez deitzearren, nahi baino sarriagotan izan dira era desberdinetako arazoak. Arazoak epaileekin, berdin gurasoekin eta entrenatzaileekin ere. Agian, gutxiena jokalari edo kirolarien artean.

Arazo hau ez da egungoa bakarrik. Asfaltetik datorren fenomeno da, baina agian azken urteetan gehiago azaleratu dena, bai eskolarteko ekintzetan eta baita federatuak diren ekintzetan ere. Betiko moduan, kirola da gizartearen ispilu nagusienetako bat.

Berauen errudun beti gurasoak ez direla jakitun izan arren, eta jakin arren guraso guztiak zorionez berdinak ez direla, beraingana zuzentzen naiz oso modu sinplean. Kirola, eta larunbat goizetako kirol ekintza hauek ere, noski, gure seme-alabentzat ekintza hezitzaileak direla kontuan izan behar dugu, inolako zalantzik gabe. Eta ekintza hezitzaileak diren neurrian, lehendabizi guraso garena kontuan izan behar dugu, eta ondoren jarraitzaile, inoiz ez alderantzizko ordenean.

Arazo hauek berriro gerta ez daitezen, kirol ekintza hezitzaile hauetan parte hartzen

duten agente desberdin guztien arteko errespetua ezinbestekoa da; errespetua zentzu eta norabide guztietan. Errespetua baita gure seme-alaben gozamenerako lanean ari diren hauei zor diegun gutxieneko balorea; ezin baitugu ahortzi entrenatzaile eta epaile asko, adibidez, inolako etekin ekonomikorik gabe lanean dihardutela, bolondres gisa.

Horrela lortuko dugu, aisialdirako geroz eta denbora gutxiago duten gure seme-alabek larunbat goizetan, gutxienez, jolastea. Beraz, utz diezaiegun gozatzen.✱



aitor zulaika

IKUSTEKOA



▲ 'EGUNKARIA'-REN LEHEN ALEA LABETIK ATERATZEKO ZAIN.

'Berria.info'-k 'Egunkaria'-ren historia jasotzen duen argazki bilduma egin du auziari buruzko atarian. 1990eko abenduaren 5eko irudian, 'Egunkaria'-ren lehen alearen zain ageri da, lankideekin batera, Jose Luis Aizpuru azpeitiar kazetaria —erdian, basoarekin—. Euskarazko kazetaren azken zenbakia 2003ko otsailaren 20koa da, Guardia Zibilak itxi zuelako.  Uztarria✱

|||URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Ume eta gaztetxoak Gabon kantan

HATOR, HATOR... Zer talde, taldeska, taldekote, mordoia ibili zen kantari! Zein gutxi etxeetan, nire auzoan behintzat. Zenbat eta zenbat kafetegitan, errezero-edo? Zer errepertorio motza! Gehienek, –baziren pulamentuz prestatutakoak ere– *hator, hator...* eta kitto. Euskal kantutegian dagoen kantu pilarekin! Aurtengo Gabonetan hobeto?



|||||maite garmendia|||



Jostailuak trukatur

SEGI HORRELA! Ekonomia sustengarria izan dadin, birziklaketa ezinbestekoa da. Birziklaketa hiru legeei jaramon egin behar badiugu –murriztu-berrerabili-birziklatu– honelakoak gero eta gehiago beharko ditugu. Hone-lako ekimenen sustatzaileei: Zorionak! Segi horrela!



Libre!

‘EGUNKARIA AUZIA’. “Indar demokratikoei” itxi ziguten *Egunkaria*. Demokrasiaren oinarrian behar lukeen adierazpen askatasunaren ahotsetako bati ahoa itxi zioten. “Demokrata” gutxi lotsagorritu zen, baina herriak batere lotsarik gabe erantzun zuen eta erantzun du. Zazpi

urte eta gero auzitegi nazionalak auzia ireki du. Askok eta askok behin betiko artxiba dezan eskatzen diogu eta kalteak osatu. *Egunkaria*-ren aldeko manifestaldira, Azpeititik hiru autobuskada joan ziren. Auzipe-tuei, berriz, animo! Laister izango dira-eta LIBRE.*

INKESTA

karnabaLetan
mozorrotuko al
zara? zertaz?

Ainitze Agirrezabala

LUKA ALDALUR

9 urte



"Ikastolan
bakoitza nahi
duen bezala
jantziko gara eta

Sevillanaz mozorrotuko naiz.
Lehengusu txiki batek utziko dit
soinekoa. Astelehen
karnabaleko desfilean
lagunekin aterako naiz, baina ez
dakit zertaz jantziko naizen".

IORITZ ARAMENDI

6 urte



"Karnabalak
ikaragarri
gustatzen zaizkit.
Ikastolan festa

egingo dugu eta oraindik zertaz
jantziko naizen seguru ez
badakit ere, Olentzeroz
mozorrotu nahi dut".

JONE GOENAGA

8 urte



"Azpeitiko
festetatik gehien
gustatzen
zaizkidan jaiak

dira karnabalak. Bai Ikastolan,
baita kalean ere Sevillanaz
jantziko naiz. Lehengusu batek
utziko dit soinekoa".

ENERITZ ARAMENDI

8 urte



"Karnabaletan
Ikastolan egiten
dugun festa asko
gustatzen zait.

Pailazoz jantziko naiz, aurpegia
margotuta eta peluka-eta guzti.
Kalean egiten den mozorro
desfilean ez naiz aterako".

Erleak... (eta II)

I azko azaroaren 12an, Martxel Aizpuruk, biologo
eta erlezainak, emandako hitzaldiarekin jarraituko
dut, xehetasun batzuk emanaz.

Erleak kolonietan bizi dira, eurek sortutako horma
eta zuhaitz zaharretako hutsune eta zuloetan, eta gi-
zakiak eratutako erlauntzetan. Azken honetakoak
Gipuzkoan 6.000 inguru egongo direla kalkulatu
da; bakoitzean 80.000 arte bizitzera. Barruko
antolaketa harrigarria da. Abaraska edo eztiorra-
ak zintzilik dira, behin ere ez etzanda, beren arte-
an aski tartearekin erleen joan-etorrian elkarri ez oz-
topatzeko.

Erle eme bat erregina bihurtzeko erregina-jeleaz
elikatu behar du bere kume garai osoan, beste ku-
meek lehenengo hiru egunetan bakarrik, eta heldu-
tasunera iritsita kanporantz abiatuko da, erle arrekin
estaltzeko, eta bere barnean bizi osorako adina mi-
lioika hazi jasoko dute, eta gehiago erlauntzatik ez
da irtengo, gorotza egitera izan ezik. Egunean,



higinio oiarzabal

3.000 arrautza inguru ipiniko ditu, eta banan banan
bakoitza bere alboan kokatuko ditu. Hiru urtetik au-
rrera antzutzen joango da, eta beste ordezeko bat
beharko dute.

Erlauntzako gainontzeko eme guztiak antzuak
dira; ez horrela arrak. Batzuk ezta ekartzen dute;
besteek, berriz, polena eramaten dute. Erlezainak
ere, batzuk eztiara aritzen dira, eta besteak pole-
na zabaltzera. Hainbat nekazarik alokatzen dituzte
erlauntzak beren landaredi eta zuhaitziak poliniza-
tzeko; batez ere, erlauntza gabezia dagoen lautade-
tan. Ekintza horrek %60 gehitu eta hobetzen du
uzta.

Varroa intsektizida da eta etiketan argi uzten du
erleentzat oso kaltegarria dela. Horren eraginez ba-
saerlea galtzen ari da. Diometatoa –DMT– da oina-
rrian, eta hau edonon erabiltzen da: nekazaritzan,
golf zelaietan, bide bazterretan... Naturarentzat ga-
lera ikaragarria.

galDETZEN hasita, bere garaian ezin al
ziren aurreikusi kanpoko igerilekua ere
estaltzearen abantailak? Uztarria

Etixerik gabe, eskale

U rte batzuk pasa dira. Juan Maria Perez Arre-
gui jesuitak idatzitako *San Ignacio en Azpeitia* libu-
rua oparitu zidaten. Irakurtzerakoan, hirugarren ka-
pituluan, nire atentzioa bereganatu zuen zerbait aur-
kitu nuen. Bertan aipatzen denez, San Inazio Paris-
tik Azpeitira etorri ondoren, Madalenako ospitalean
bizi izandako hilabete haietan, herriko Udalak araudi
bat onartu omen zuen. San Inazio bera izan omen
zen araudi horren sustatzailea.

Herriko behartsu eta kanpotik zetozen eskaleei
eskaini behar zitzaizen laguntza antolatu eta arau-
tzea zen aipatutako araudiaren helburua.

Hartutako erabakien artean, hauek aipatzen dira:
urtero behartsuetaz arduratuko ziren bi herritar
izendatzea, limosnak jaso eta diru laguntzak zabal-
du zitzaizkion; bertako eta kanpoko behartsuek etxe-
etxe egiten zen diru-eskea debekatzea; behartsuen
izena zerrenda bat egitea...

Ordutik hona ia 500 urte pasa dira. Garai hartan



kepa susperregi


bezala gure artera iristen dira ibiltari eta eskaleak
ere. Eta garai hartan bezala, laguntza antolatu
behar dute.

Halako zerbait aipatzen da, duela pare bat hilabe-
te, *Noticias Obreras* aldizkarian agertzen den arti-
kulu batetan. *Etixerik gabeko pertsonen atentzioa:*
beharrezko espezializazio baterantz du titulua.

Bertan aipatzen denez antolatu eta espezializa-
tua behar du izan etxerik-gabekoei eskaini behar
zaizen laguntza nagusiak. Hala diote behintzat, Biz-
kaian egindako ikerketa baten ondorioz: "Izan ere,
etxerik gabeko pertsonen artean tipologi ezberdi-
neko lagunak daude: bertakoak horietako batzuk
eta etorkinak besteak. Egoera pertsonala gogoan
hartuz gero, horietako batzuen arazo nagusia etxe-
rik ez izatea da; beste batzuen, berriz, etxerik ez
izateaz gain, arazo pertsonalak ere izatea: gaisota-
sun mentalak, alkoholismoa, osasun arazoak, droga
kontsumoa..."



||||| andoni salegi |||||



Urruti



|||||joxin iturriotz|||||

Azpeitiar bat isilarazi egin dute. Joxe Arregi frantziskotarra, alegia. Urtebeteaz omen du artikulurik idatziko ez iritzirik publiko emango. Bere arrebak dioenez, Uriarte gotzainaren eskariz etorri da debekua. Gotsain berria izango zen, eta dagoeneko den, Munillaren “trapu zaharrak” zabaldu zituelako etorri bide da isildu beharra. Asteroko hitzordua zeukan *Atrio* web orrian eta egunkarieran. Baina Munillaren trapuak aipatzeak asindu ditu bazterrak.

Eta kontua ez da esaten dena egia ala gezurra den, Munillak apaiz garaian bere orde-

nadoreko “mafia” izeneko karpetan Gipuzkoako apaizen jarraipen sasi-poliziala egiten zuen ala ez, egia izanik ere ezin daitekeela paperean ipini baizik. Aipatutako egia larria izanda ere, trapu zaharrak etxean garbitu behar omen dira. Eta gero kanpora agertu garbitasun itxura hori. Baita iritziekin ere. Egia beste ezeren gainetik, ezta? Bekatariok gu, egia itxurakeriaren gainetik estimatzen dugunok!

Ez al da hori ezkerreko alderdietan “zentralismo demokratikoa” deritzana? Beti kritikatu izan dute ezkerreko partiduen demokraziarik

eza, eztabaidaren ondoren erabakiak baino ez zirelako kanporatzen. Eta barne korronteirik ez zutelako onartzen. Berdin kritikaturik ote dute orain eliza santu, katoliko, apostoliko eta espainiar (barkatu, erromatar) hori?

Galdetu izan didatenean fededuna naizen ala ez, sekula ez dut baiezkorik edo ezezkorik erantzun, urruti sentitzen naizela baizik. Seminarioan emandako hamaika urteak ez ziren alperrik izango. Joxe Arregiren artikulua pixka bat hurbilarazi egiten ninduten. Munillaren etorrerak oso urruti sentiarazten nau. Zorritzarez, gero eta urrutiago.*

|||GAI BAT, BI IKUSPUNTU|||||

txikiteo ELEGantea. garai batetik zertan aldatu da festa? Lehengoak nola moldatzen ziren trajea inguratzeko? gehieqizkoa al da egungoa?

Asko aldatu da festa

Urteen poderioz, Igande karnabaleko festa giroa asko aldatu da. Gogoan dut, 17-18 urterekin aitari trajea hartu eta mutilez jantzita ateratzen ginela, baserritar txapelarekin. Geroago, ganbaran bilatutako gona beltz estu bat eta media beltzak jantzi, gainetik tokilla jarri, aldameneko bizilagunari txaketa eskatu eta izebaren abrigoa hartu eta moldatzen ginen. Nire senarra zumaiarra da eta nobiotan Igande karnabalean Azpeitira trajea jantzita etortzeko agintzen nion, bestela ez zela nirekin aterako. Geroago, amak bi gona eta txaketa beltz josi zizkidan. Gaur egun, oraindik badago jendea lehengo arropak jantzita ateratzen dena eta nik ere badut asmoa hala ateratzeko.

Orain dagoen *boom!* hori ez zegoen lehen. Igandean baino festa handiagoa eta jende gehiago izaten zen Astelehen karnabalean. Oraingo traje berri hauekin-eta hasi zen Txikiteo Elegantea indarra hartzen. Igandean, berriz, 16:30tako sokamuturraren aurretik puru-piztea izaten zen plaza eta hara joaten ginen.

Itsasi dantza taldeak antolatutako Artzai-inudeen desfilean ere urteetan hartu izan dugu parte familia osoak. Nik nire semeak hilabete eta erdi besterik ez zituztela atera izan nituen antigoaleko kotxeetan sartuta. ‘Begira zer andare!’ zioten gazte batzuek Korrale tabernaren parean. Umeak, ordea, mugimenduren bat egin eta benetakoa zela jabetu ziren.*

|||Aitari trajea hartu eta mutilez jantzita ateratzen ginen, baserritar txapelarekin

Kristoren gastua

Venezuelako “La puesta de largo” festaren indarra ari da hartzen Txikiteo Elegante Eguna. Nik urteak daramatzat Igande Karnabalerako trajeak eta soinekoak josten. Iraila edo urria aldera etortzen zaizkit neska gazteak euren amekin, katalogoa ikusi eta zer-nolako trajea josi erabakitza. Neska gazteak hamabost urterekin irtetzen dira aurrenekoz Txikiteo Elegante Egunean jantzita. Askoren erregetako oparia traje hori izaten da. ‘Nik behin oparituko dizut trajea, hurrengoa zure kontutik egin beharko duzu’, esaten die amek euren alabei. Zortzi traje josi ditudan urteak izan dira, baina aurtengo beste lan-txo batengatik pare bat traje ez ditut hartu eta sei traje josi ditut.

Nesken kasuan, egun horretako prestaketa kristoren gastua da.

|||Oinetakoak, ileapaindegia, trajea... 600 eurora igotzen da egun horretako gastua

Inor ez da etortzen izeba baten txaketa hartu eta ari gona bat josteko asmotan. Oraingo neskek goitik behera jatten dira. Traje berriak egiten dituzte. Zenbaitek tela ekartzen didate neurrira mozteko eta, ondoren, beraien izebaren batek edo josten diete eta gastua txikiagoa da. Urte batzuk

eginda, trajearekin nazkatzen direnean, berriz, txaketa edo ekartzen dute zerbait aldatzeko. Trajea, oinetakoak, ileapaindegia eta osagariak kontutan izanda 600 eurora igotzen da egun horretako gastua.

Mutilen kasua bestelakoa da. Zara-tik eta erosten dituzte trajeak, prezio onean.*

|||||esther berasategi||||| (Txikiteo Elegantean irteten du)

|||||tere ezeiza||||| (jostuna)



▲ GABON-ESKEAN.

Antxieta Abesbatza sortu zen urteko argazkia da, 1984koa. Antxieta Musika Eskolako neska-mutilak Gabon-eskean ageri dira, Parrokia aurrean ateratako argazki honetan.

25 urte kantuan

Antxieta Abesbatzak mende laurdena beteko du ikasturte honetan. Urte guzti horien argazki-bilduma osatu du Uztarriak. 📎 A. Agirrezabala 📷 Antxieta Abesbatza



► GAZTEAK


Argazkian, Antxieta Gazteak Abesbatzako kantariak Gloria Larramendi zuzendariarekin. Antxieta Abesbatza sorreratik zuzendu du Larramendik. Antxieta Gaztea 14-20 urte bitarteko gazteek osatzen dute; Antxieta Txiki, berriz, 10-15 urte bitartekoek. Gazteen Abesbatza bertan behera gelditu zen, 1996an.



▲ ANTXIETA TXIKIKOEN JAIALDIA, ZELAITXON.

Antxieta Abesbatza 1984an sortu zen Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolako ikasleekin, beren musika ikasketen osagarri izan asmoz. 1987an ikasle kopurua handia zenez eta adin desberdinetakoak elkartzen zirenez, Antxieta barruan bi abesbatza sortu ziren: Antxieta Txiki eta Antxieta Gazteak. Argazkian, Antxieta Txikiko jaialdia Zelaitxon, 1987an.





▲ UNESCON ERE BAI.

Parisera egindako bidaiari, bigarren hitzordu garrantzitsua Unescoren egoitzan zuten. Bederatzi abesbatzek hartu zuten parte kontzertuan; bakoitzak bina kanta kantatu zituzten.

► ZEZILI DONEAREN KONTZERTUA.

Antxieta Txiki Abesbatzak urtean zehar gauzatzen dituen ekintzak Musika Eskolak antolatzen dituenekin lotuta daude: musikarien eguneko Zezili Donearen kontzertua –argazkian, 1992. urteko azaroaren 22an–, Asteburu Musikalak, Ikasturte amaierako jaialdia...



▼ HENDRIK LOOC

1997ko urrian, V. Udazken Antxieta txiki Abesbatzak Abesbatzen lehiaketaren zuten parte, Hendrik Looc zuzendaritzapean, eta CD



▲ IRUÑEKO GAYARREN.

David Azurzak konposatutako *Horra Mari* obra aurkeztu zuten Iruñeko Gayarre antzokian, 2002ko urtarrilaren 4an.



CK-EKIN TOLOSAN.

eko Kurtsoan parte hartu zuen
Tolosako Nazioarteko
arira. Koru pilotu gisa hartu
k zuzendari hegoafrikarren
bat grabatu zuten.



▲ ABESBATZA LEHIAKETAN BIGARREN SARIA.

Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak antolatuta III. Abesbatza Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen Antxieta Txiki Abesbatzak. Zumarragako Antiguako baselizan abestu zuten, 1999. urtean.

▼ 25. URTEURRENA PARISEN.

Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko Antxieta Abesbatzakoak Parisen izan ziren Nazioarteko Jailadi batean, urtarrilaren 14tik 17ra. Bidaia horretan, Villepinteko Abesbatzen Nazioarteko Jaialdian parte hartzeaz gain, Paris eta Eurodisney bisitatzeko denbora ere izan dute. Argazkian, Eurodisneyn.*



Zazpi mende baino gehiago

Azpeitiak herri-gutuna jaso zuela 700 urte beteko dira; baina urteurren hori zer izan zen argitzeko garaian ez da erraza adostasunera heltzea. 📎📞 Ainitze Agirrezabala

Iragana irakurtzeko eta ulertzeko erabilitako betaurrekoen arabera, historia kontatzeko ikuspegi desberdina du bakoitzak. Hil honen 20an 700 urte beteko dira Azpeitiak herri-gutuna jaso zuela, baina urteurren hori gogoratzeko jardunean ez da erraza adostasunera heltzea. Nolanahi ere, urtemuga horrek herritarrek ezagutzen ez duten historia horretaz gehiago jakin eta memoria historikoa berreskuratzeko balio beharko luke.

Gaztelako erregeek Azpeitiari emandako herri-gutuna zer den argitu asmoz, urtemugarren inguruan ikuspuntu desberdinak bildu ditu Uztartia-k. Higinio Oiartzabal eta Mirari Bereziartua, Nabarralde kultura-elkarteak sustatutako *Azpeitia Bizirik-Nafarroa Bizirik* plataformako kideekin eta Imanol Elias historialariarekin hitz egin du.

Urteurren honen baitan “datu garrantzitsua bat” dagoela adierazi dute *Azpeitia Bizirik-Nafarroa Bizirik* plataformako kideek. “Gaztelakoek ez zuten ezer sortzen. Milurteak dira euskal lurretan herriak egon eta jendea bizi dela. Indarrez hartu ondoren, herriari berea zuen legedia kendu zion. Indarrez lortutako

memoria
historikoa
berreskuratu eta
historiaz gehiago
jakiteko balio
beharko luke
urtemugak

lurrak zaindu eta estrategia horrekin mugan zeuden beste lurrak erasotzea zuten helburu, eta hala gertatu zen. Erregeak aitortutako herri-gutunak ematen zuen gauza bakarra, Gaztelako legediaren ofizialtasuna zen”. Bereziartuaren esanetan, “gogoan dugu, ez zaila komeni iraganean sartzea, atzerako ispilua gidarizat hartuta. Ez dugu iraganean bizi nahi. Nahi duguna zera da, iraganetik ikastea. Eta horretarako arreta ipini nahi dugu, ez edozer garai edo gertakizunetan,

baizik eta burujabetu eta indartzen gaituenean”.

Imanol Eliasek adierazi duenez, benetan gertatu zena argitzea “oso zaila” da. “Nik ez dut zalantzan jartzen hau lehenago Nafarroako erresuma zela, hori horrela da. Gero, Gaztela hemen indarrez sartu zela eta ez zela sartu... Konkistak alde batera utzita, gure aurrekoek Azpeitiko herria sortzeko egindako lan hori, behintzat, gogoratzeko moduko efemeridea dela esango nuke. Gertatu zena gertatu zen eta hor ez dago ezer aldatzerik”. Historialariak “garbi” du herri hau ez dela “bere kasa” etorri. “Baten batzuek egin zuten lana. Hemen bizi ziren gure aurrekoak gogoratu, herria nola etorri den ezagutu, eta aurrera begira zer-nola jokatu aztertzeko une aproposa da urteurren hori”.

“Historia ofiziala, irabazlearena”

Mendeetan, mundu osoan, historia kontatzeko moduan, “irabazlearen edo galtzailearen ikuspegitik kontatzen denaren arabera, menpekotasuna edo askatasuna lantzen” dela adierazi dute Nabarraldeko kideek: “Historia►



XX. mende hasierako argazkia. Artean kioskorik eta berdura plazarik ez eta festetan kiosko mugikor bat ekartzen zuten. ||| Angel Rodriguezek utzitako argazkia

ez da inoiz neutroa. Bakoitzak bere ikuspegi-tik kontatzen du. Irabazleak historia ofiziala erabiltzen du menpekotasuna iraunkortzeko, eta galtzaileak bere memorian gorde duena lantzen du, bi aldiz galtzaile ez bihurtzeko; gerraz gain identitatea ere galtzeraino”.

Bereziartuaren esanetan, “gure komunitatearen antzinatasuna, haren sustrai sakonak eta bizirik jarraitzeko indarra... egoera horiek baloratzeko aukerak ezin gaitu nahastu zentzua galtzeraino. Ezin gara okertu, gertakizun ez hain positiboak edo mesedegarriak, zaku berean sartzen”.

Duela 700 urte, 1310ean, Gaztela eta Leongo erregeak, Fernando IV.ak, Azpeitiko—Salvatierra edo Garmendia de Iraurgi—bizilagunei foruak eta herri-gutuna eman zien, hiribildua sortuz. Oiartzabalek adierazi duenez, 1200ean Gaztelak “konkistatu eta indarrez hartu” zituen Nafarroako erresuma osatzen zuten euskaldunen hainbat lur. Orduan, nafar erresuma osatzen zuten lurren artean, egun Araba, Bizkaia, Errioxa eta Gipuzkoa izenekin ezagutzen ditugun lurraldeak zeudela gaineratu du, Iraurgi edo Urola bailara barne.

Lurraldea “hobeto kontrolatzeko” eta nafar herritarrek “jauntxoek mendeetik libratu” nahi zituela aitzakiatzat hartuz, Gaztelako koroak, “gerra eta armen bidez” hartu zituela lurak azaldu du Bereziartuak: “Baina, errealtatean, kanpoko erregeen boterea sendotu eta indartzeko erabili zituzten; eta, ekonomia, zergak, menpekotasuna, eta, batez ere, erregearen diru-kutxak onbideratzeko. Gaztelako diru-kutxak, ez euskaldunenak”.

Urbanizazio kontuak, gaur egun bezala, orduan ere “konplexuak” zirela adierazi du Oiartzabalek. Erdi Aroko urbanizazioa, bai lurrrak jendeztatzea eta baserrietako sakabanaketa herrietan biltzea, “erregeen mesederako estrategia bat” iza zen. “Politika hark jaun feudalak ordezkatzeko eta ahultzen zituen. Baina, ez herriaren mesedetan, koroaren mesedetan baizik. Ez da ahaztu behar, jauntxoek eta nobleziak aurrera egin zutela Gaztelarekin, beraiek baitziren errege-erreginen familiarekin ondoen konpontzen zirenak. Familia gorenek gobernatzen zituzten herri euskaldunak eta bertan dorreak eta ondasunak zituzten. Ahaide Nagusi horiek, bandoe-

tan antolatuta, sarritan indarkeriara eramaten zuten herria. Arrasateko erreketak da horren adibide bat”.

“Konkista izan zen”

Herria, lurra, komunitatea, lana, hizkuntza, kultura... milurteetan lekuz aldatu ez diren “aurretiko euskaldunen ondarea” direla garbi utzi nahi izan du Bereziartuak. “Ez gintuen Gaztelak egin. Ez zigun ezer oparitu. Gaztelak konkistatu egin gintuen, bortxatu. Geureaz jabetu zen gerra bidez, legez-kontrako eraso batean. Biolentzia haren arrastorik ez uzteko, gogotik saiatu ziren artxiboak eta elizak erretzen. Aurretiko guztia suntsitu zuten, etorkizunean erreklamazio bat frogatu zezakeen guztia”. Oiartzabalen esanetan, “horregatik, lehengo garaiko dokumentu eta idatzizko erregistrok ez dago. Froga dokumentaletan eta notarialetan gelditzen den apurra, pixkanaka-pixkanaka beste leku batzuetan agertu da; sakabanatutako artxiboetan, adibidez, azpeitiar askok ezagutzen dugun Huescako San Juan de la Peña nafar monasterioan agertutakoak bezala”. Gerora, mo-

►nasterio horrek Aragoiko koroaren autoritatearen pean jarraitu zuen eta horrela erretzetik salbatu zen.

Bereziartuak dioenez, 700. urteurren hori “bere klabe eta koordenada historikoetan kokatu, eta anakronismoetan ez erortzeko”, garai hartan Gipuzkoa “ez zela existitzen” pentsatu behar da. “Hori horrela, sarritan argudiatzen da gure iragana Gipuzkoa eta Gaztelaren arteko itun baten sorburu izan zela. Gipuzkoa borondatez sartu zela Gaztelan. Nola sinatu dezake existitzen ez denak eta lur hauek konkistatu eta 200 urte pasatu eta gero horrela izendatua izan zenak? Herrialdeko —euskal lurraldea— lurralde eta antolakuntza politiko guztia, Nafarroako erreinuan integratuta zegoen. Nafarrak ez dira inoiz hona etorri, —gaztelarrek egin zuten gisan, gerran—, gu ginen nafarrak, azpeitiarrak; gasteiztarak, bermeokoak, biasterikoak edo tuterakoak bezala”.

Nabarralde elkartekoen esanetan, “merezi du gogora ekartzea, duela zazpi mendetatik Azpeitia hiribildu bezala Espainiako autoritatearen menpean dagoela”. Urtemuga horrek, “ospakizun bezala baino, memoria kritikoa egiteko ariketa” beharko luke izan. Data horrek esan nahi izan zuenaren inguruan “jakiteko eta hausnartzeko asko” dagoela gaineratu dute.

Sustraiak eta ibilbide historikoa “ezkuta-tuak” dituen herri bat, hein handi batean, “hautsita” dagoela dio Bereziartuak: “Jada engainatua dagoen herri bat berriro engainatzea askoz ere errazagoa da. Horregatik, gure iragana ezagutzea beharrezkoa dugu, gaur egungo erabakiak egoki hartzeko makulu izanik, etorkizunaren jabe izatera pasatu gaitezen”.*



Higinio Oiartzabal eta Mirari Bereziartua, ‘Azpeitia Bizirik-Nafarroa Bizirik’ plataformako kideak.

Hainbat ekimen urte osorako

III Azpeitiak herri-gutuna jaso zuela 700 urte betetzen dira aurten, eta urteurren horren baitan, Udalak hainbat herritar eta eragilerek elkarlanean zenbait ekitaldi antolatu ditu urte osorako.

Era askotako ekitaldiak antolatu dituztela azaldu du Ana Mendizabal Udaleko Euskara eta Kultura zinegotziak: “Urteurren berezi hau gogoratu eta Azpeitiko historia errepasatzeko aukera bikaina eskainiko zaie herritarrei: lehiaketa, hitzaldiak, erakusketak, jaialdi bereziak, bisita gidatuak eta liburu eta ipuin bildumak, besteak beste”.

Herriko hainbat arlo landuz, zazpi liburuko bilduma aterako dute aurten: “Herriko ondare artistikoa, genero

harremanak... gai ugari lantzen dituzten liburuak dira. Haurrentzako ipuin bilduma bat ere argitaratuko dute: “Herriko txikiek ere Azpeitiko historia ezagutu dezaten **Azpeitiaren historia marrazkitan** bilduma aurkeztuko dugu hilaren 20an. Bost-sei urteko umeentzako ipuinak dira”.

Egitaraua osatzen duten ekitaldien artean **Azpeitia Ezagutzen Lehiaketa** abian jarri dute, **Azpeitian zer?** udal aldizkariaren bidez. Helburua herriko historia ezagutzea da. Imanol Elias idazle eta historialaria arduratu da lehiaketa antolatzeaz.

Urtemugaren inguruan antolatutako ekitaldietan herritarrek parte hartzea “beharrezkoa” dela eta, beraz, “horretara animatu” nahi dituztela adierazi du.

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

di

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

**- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA**

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Koh Tao
OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Duela 700 urte, “benetan zer gertatu zen erabakitzea oso zaila” dela adierazi du Imanol Eliasek: “Gaztelak Araba indarrez hartu zuela, hala da; baina Gipuzkoaren kasuan esan izan da, Araba gertatu zena ikusita-edo, beraien erabaki zutela Gaztelako erregearekin elkartzea”. Alabaina, Gaztelako erregea gaixotu zenean, “barruan halako zamorroren bat bazuela kontatzen da; Nafarroari lurak kendu izan balizkio bezala, eta berriro lurak bueltatu arteko egonezina-edo zuela”.

Bi aldean arteko itun hori frogatzeko, XV. mendean lehiaketa bat egin zela dio Eliasek: “Diru asko eskaini zuten, eta baita orri pila bat aurkeztu ere, baina ituna egin zutela frogatzen zuen arrazoizko agiririk ez zuen inork bilatu”.

Juridikoki herririk ez

Eliasek esanetan, Azpeitia 1310ean sortu arte, “juridikoki herririk ez” zegoen. “Jendea bizi zela bai, baina erregeak izendatuta Sancho Ruiz de Auzmendi zen alkatea eta haren menpean zeuden denak. Herria sortuz gero, Auzmendiaren menpetik ihes egin eta herria bere buruaren jabe izango zen. Hala, lurak eskaini zizkioten Gaztelako erregeari Garmendi gainean”. 1027an azaldu zen Iraurgi bailararen lehen aipamena, Iruñeko gotzain barrutiaren agirietan, baina 1310ean Garmendia de Iraurgui izena eman zion Gaztelako erregeak. “Hori gertatzerako, Gipuzkoa alde eginda zegoen Nafarroatik; 1200ean aldegina zuten”.

Egun parrokia den lekuan, eliza txiki bat zegoen, eta “1311n, eliza inguruan erregeari lur batzuk es-

Argitu gabeko kontua

Indarrez konkistatua izan zen edo ez, hori alde batera utzita, lur hauetan bizi izan zirenek Azpeitiko herria sortzeko egindako lana gogoratu nahi du Eliasek urtemugan



Imanol Elias historiagilea eta alkate ohia, Azpeitiko udaletxe azpian.

kaini eta eliza ere bereganatu” zutela kontatzen du. Gaztelako erregeak Salvatierra de Iraurgui izena eman zion urte horretan.

Gauza guztiak “eskuratuz, herria sortuz” zihoan, baina Auzmendiarekin “kristoren borrokak” izan zituen herriak, “nagusitasun

boterea” galtzen ari baitzen. Baserrietatik ere pixkanaka-pixkanaka jendea jaitsi eta herrian biltzen joan ziren. “Jendea bilduz, lurralde bat bereganatzen zutela ikusitean, Azpeitia eta Azkoitiaren arteko mugak zehaztu zituzten, 1458an”. Aurrerantzean, Azpeitia

Efemerideak

||| Azken zazpi mendeetako data esanguratsuenak bildu ditu Imanol Elias historiagileak.

“1480tik, Gipuzkoako Korrejidoreak bere txanda egiten zuen Azpeitian, hiriburu bihurtuz. 1491. urtean, Loiolako Inazio jaio zen eta 1610ean herriaren erabakiz, San Inazio eguna jai izateko patroitzat hartu zuten. 1568an, Soreasuko Sebastian donearen eliza berriro zuten. 1766. urtean, **Matxinada** izenarekin ezaguna den altxamendua izan zen. 1794an, berriz, Frantziako konbentzioaren guda-taldeen herria bereganatu zuten. 1841ean epaitegi-barrutia sortu zen eta 1850ean San Agustin komentua udaletxe bihurtu. 1855ean izurrite beldurgarriak 272 hildako utzi zituen”.

bezala agertu zen agiri ofiziale-tan. “Izen hori ez zion Gaztelak eman, herriak berak izendatu zuen horrela”.

Azpeitiak bazuen udaletxea. “Bizitza berria zen”. Herrira biltzen joan ziren baserriar batzuk “ihes” egiten zuten; “noski, herria sortzeko ordaindu beharra zegoen”.

Jauntxoak “nagusi” ziren hemen —ganboatarrak, oñaztarrak— eta haiek buru zirela “ezer gabe elkarren artean kristoren borrokak” izaten zituzten, “nagusitasuna azaldu” nahian. “Jendeak jauntxoaren esana segi behar izaten zuen. Haiekin ez bazeunden, akabo. Orduan, haien menpetik ere askatu nahi zuten herriak”. 1448an Arrasatera hementik jende pila joan zela kontatu du, eta su eman ziotela herriari.★

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

Elurra oztopo

Elurra gauza polita den arren, errepidean ibili behar duenarentzat arazo latza da. Baserri-bideak garbitzeaz arduratzen dira zenbait auzotar. 🗑️👁️ Nekane Zinkunegi

Elur garaia ez da gozoa izaten baserritarrentzat, eta Azpeitiko auzoetako baserritarrak ere ez dira salbuespena. Errepide nagusiak txukun uzten dituzte elurra kentzeko makinekin horretan dihardutenek, baina auzoetako baserri-bideak garbitzea beste zenbaiten lana izan ohi da. Azpeitian, auzoetako bertako jendea arduratzen da horretaz. Patxi Etxeberria Matxinbentako baserri-bideetako elurra kentzen aritzen da, eta Juan Kruz Egigurenek Oñatz, Aratz-erreka, Urrestilla eta Nuarbe auzoetako ardura du.

Matxinbentako errealtatea zein den azaldu du Etxeberriak: "Nik, elurte garaian geure etxe inguruko elurra kentzeko banuen halako aparatu bat prestatua etxeko traktorearekin". Hasiera batean, matxinbentarra bere baserri ingurua garbitzeaz arduratzen zen. Gerora, ordeaz, auzokoen inguruak garbitzera ere jo zuen. "Auzotarrek pozik hartzen zutela ikusita, behin geurea eginda besteena egitea ez zitzaidala kostatzen pentsatu nuen", dio. Hala, orain hamabost urte ingurutik hasita, elurra kentzera ateratzen denean, ahal dituen bide guztiak garbitu arte jarraitzen du.

Egigurenek kontatu duenez, "hemen inguruan hori egingo zukeen beste inor ez zela eta, udaletik lan hori eskaini zidaten". Baiezkoa eman zuen, orain hiru bat urte. Oñazko Zelaian baserrikoa da bera eta bertan lan egitetik bizi da. Hori eta elur-kentzearena partekatze nola ibiltzen den galdetuta "as-



Patxi Etxeberria eta Juan Kruz Egiguren.

kotan anaiak-eta lagundu ohi didate eta horrela moldatzen naiz besterako tarte bat ateratzeko", adierazi du.

Etxeberriak erreleboan lan egiten du eta ondorioz, badu egunean zehar denbora tarte bat bide garbitzeari eskaintzeko: "Erreleboan egokitzen zaidan txandaren arabera, goizean ez bada arratsaldean har dezaket denbora elurra kentzeko".

Largarate-Behekoa baserrian bizi da Etxeberria eta urte mordoak darama elurra kentzeko lanean. Alabaina, egiten duten lanagatik zerbait kobratzen dutela ez da denbora asko: "Urte guztiak ez dira berdinak, elurte garai hobeak eta okerragoak daude eta ezin gai-

tezke hortik etorriko zaigunaren zain egon. Horrez gain, beste lanbide bat izatea beharrezkoa dugu".

Zalantzarik ez da horiek biek burutzen duten lanak mesede itzela egiten diela Azpeitiko auzoetako baserritarrei. Hala ere, aldi berean arrisku dezentea hartzen dute euren gain. Oñaztarraren esanetan, "ahal duten heinean saiatzen dira euren lana ahalik eta ondoen betetzen, baina arrisku handia dagoela ikusten dugun lekuetara, hobe izaten dugu ez sartuta". Etxeberriak dioenez, ez dute obligaziorik arriskuan ibiltzeko. Ahal den neurrian laguntzea da gure egitekoa". Sarritan, gainera, elurra bera baino okerragoa elurra kendu osteko izotza da eta horri ere neurria hartzeko joera badute. Udalak berak, gatza jartzen du eskura eta Egigurenek, behintzat, elurra kentzen doan heinean, gatza ere botatzen du izotzari aurre egiteko.

Norbere traktorea

Beharrezko makineriari dagokionez, Etxeberria bere kasa hasi zen lan honetan eta berak prestatuta zuen traktorea elurra kentzeko moduan. Egigurenen kasuan, traktorea gainerako hainbat gauzetarako baserrian darabilena bada ere, pala-eta udalarenak dira. Elurra egiten duenean, libre badaude, behintzat, ez dira arazoak direla-eta elurra kentzera joateko inork deitu zain egoten. "Normalean dena batera izan ohi da. Nonbaitetik deitzen

dizutenerako hasten zara han edo hemen elurra kentzen eta baietz, laister joango zarela hara eta horrelakoak izaten dira", kontatu du Etxeberriak. Egiten duen ibilbidea kontuan hartuta, bost edo sei baserritako bideak garbitzeko, zazpi kilometro inguru egiten ditu Matxinbentan zehar eta ordu eta erdi, pare bat ordu inguruko lana izaten du.

Egigurenek auzo bat baino gehiago igaro behar izaten dituenek, luzeago egiten zaio jarduna. Sarritan, udalera deitzen omen dute baserritarek eta udaltzaingotik heltzen zaio berari abisua. "Arazoa da leku denetan aldi berean egiten duela elurra eta guk ezin dugu alde denatara garai berean iritsi. Okerren dauden guñeak ahal bada kenduta uztea nahi izaten dut, baina ibilbide osoa egiteko 7 ordu edo beharko nituzke".

Estimu handiko lana

Auzotarrek beren lana eskertzen dutela diote biek. "Zenbait kaso egitera etorri ohi da, kafea eskaintzen dizu eta lagundu ere bai, beharrezkoa bada" dio Etxeberriak. Egigurenek adierazi duenez goizean kendu ostean berriz elurra eginez gero, euren lanak balio ez izateak "pena" ematen dio.

Elurra kentzea eurentzat betebeharra den galdetuta, egiteko prest behintzat badaudela diote. "Gainerakoan ez du ematen inork horretan hasteko asmorik duenik, baserrietan ere, geroz eta gazte gutxiago geratzen baita. Nik ahal dudana artean segiko dut", dio oñaztarrak. Matxinbentarrak ulertzen du "udalak denera iristerik ez" duela izango eta berari ere orain artean bezala jarraitzea ez zaiola axola dio.

Egiten duten lanean ez dute gertaera bereririk izan orain artean. Hala ere, Egigureni



Baserri-bideak garbitzeko traktorearekin ageri dira Etxeberria eta Egiguren —traktore barruan—.

Dena parean

III Egunerokotasunean inongo arazorik gabe burutzen diren hainbat ekintza, elurrak oztopatu egiten ditu. Etxeberriaren esanetan, "haurrak eskolara eramateko edo lanera joateko, beharrezkoa da goizean nahikoa garaiz libre izatea". Hargatik, badira garai zehatzak ezinbestean elurra kenduta egongo dela bermatu behar dutenak. Egigurenek adierazi duenez, "askotan, dena parean tokatzen dela dirudi. Medikuaenerako urgentziazko bisitak ere orduantxe izaten dira eta bideak ezin du elurtuta egon".

amorru gehien ematen diona, kaletarren jarrrera da: "Kalean ikusten den elur apurrarekin ez da arriskurik egoten eta baserri inguruetara igo ohi dira elurretara". Autoa edozein lekutan uzten omen dute eta berak traktorearekin elurra kentzera joan behar izan duenetan, bidea oztopatzen dauden autoak egokitu zaizkiola adierazi du.

Matxinbentako Etxeberria eta Oñazko Egigurenez gain, baserri-bideetako elurra kentzeaz arduratzen den jende gehiago ere bada Azpeitian. Abel Segurola Elosiaga auzoko bideetako elurra kentzeaz arduratzen da, eta Antonio Garatek aurki Izarraitz auzoko langintzari helduko dio.*

ANA MARI TABERNA

- > Asteburuko menua 25 euro (edariak, kafea... barne)
- > Enkarguz, babarrun janak
- > Kuadrilrentzat menu bereziak

Kale Handi, 1 **URRESTILLA** Tel. 943 15 75 91





ondo pasatu festak!



jaione unanue



leire goenaga

Festarik festa

Leire Goenaga. Sansebastianak uretan blai pasa ditun eta berehala karnabalak.

Jaione Unanue. Bai neska, gustura ibilitakoan konprobatuta gelditu dun euria ez dunala oztopo.

Leire. Egun gutxi gelditzen ditun eta hasi al haiz mozorroa preparatzen?

Jaione. Zerbaitetan hasi gaitun. Animatuko haiz ezta?

Leire. Lehenengo zertaz mozorrotu behar duzuen esan beharko didan.

Jaione. Hemen ez dinat esango, bestela alperren batek kopiatuko zigun eta.

Leire. Ba pistaren bat eman beharko didan.

Jaione. Deskartatzen joan garenak esango dizkinat hemen. Gero kafea hartzera azaldu-takoan esango dinat zertaz jantziko garen.

Leire. Beldurra emateien! Ni ez naun hain...

Mozorroak

Jaione. Aurrekoan Avatar ikusten izan gintun. Irtendakoan gizaki urdin horietaz jaztea pentsatu geninan. Baina hotza pasatuko genuela eta atzera bota geninan.

Leire. Ez, ez. Karnabalak, behintzat, epel pasatuko ditinagu.

Jaione. Ba, epelak hartu nahi baditun nik esango dinat zeinetaz jantzi.

Leire. Nortaz?

Jaione. Azkenaldian lagun gutxi egiten ari den gure herrialdeko obispoaz.

Leire. Zein Munilla! Lehen ere ez zeuzkanan asko.

Jaione. Denbora gutxi behar izan din horrek famoso egiteko. Amamak esaten zuen bezala, horri ere ahoa jaboiarekin garbitu behar.

Leire. Horrek failoa ez zaukan ahoan, bu-

LEIRE. “Aingeruekin baino gehiago hitz egiten ditene horrelakoek demonioekin”

JAIONE. “Gure egoera espirituala, derrigor, oso gaizki ikusi behar din”

ruan baizik. Horrelakoek aingeruekin baino gehiago hitz egiten ditene demonioekin.

Jaione. Gure egoera espirituala, derrigor, oso gaizki ikusi behar din, Haitikoak baino okerrago gaudela esateko.

Leire. Haitikoak bai egongo direla hobeto horrelako jenderik gabe.

Jaione. Dudarik gabe.

Leire. Eta orduan, zertaz jantzi behar dun?

Jaione. Pista bat emango dinat...

Leire. Esan.

Jaione. Hiltegi nuklearretaz hainbeste hitz egiten den garai hauekin zerikusia din.

Leire. Zer, plutonioz?

Jaione. Ez, ez. Eraso nuklear bat egongo baltz ni bizirik geldituko nindunan.✕



Santi Lazkano gogoan

Santi Lazkano txirrindularia hil zela 25 urte bete dira otsailean. Haren omenez, Lagun Onak Txirrindulari Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu hilaren azken astebururako. 📌 Ainitze Agirrezabala

Mende laurdena bete da hil honen 3an, Santi Lazkano txirrindulari zena moto istripuan hil zela. Errezildarraren omenez, Lagun Onak Txirrindulari Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu hil honen azken astebururako.

Otsailaren 27an, larunbatean, ziklismoko txirrindulari profesionalek futbol partida jokatu dute, 11:00etan hasita. Euskaldunek kantabriarren kontra neurtuko dituzte indarrak. Arratsaldean, 18:30etatik aurrera, txirrindularitzari buruzko hitzaldia eskainiko dute Enparan Dorretxean. Korridore profesionalek hartuko dute parte eta Xabier Usabiaga kazetari eta txirrindulari ohiak moderatuko du solasaldia.

Hurrengo egunean, igandean, zikloturista martxa egingo dute Aizarnazabalera, 10:00etan plazaratu.

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Santi Lazkano zenaren omenezko ekitaldiak. ||| **Egunak.** Otsailak 27 eta 28 (larunbata eta igandea).

||| **Antolatzailea.** Azpeitiko Lagun Onak Txirrindulari Elkarteak.

zatik irtenda. Han, Lazkanoren omenezko monolitoaren aurrean omenalditxo bat egingo diote.

11:30etatik aurrera Lazkanoren txirrindularitza ibilbidea islatzen duen argazki erakusketa ikusgai izango da udaletxe azpian. Gero, 12:00etan, kadete eta jubenil mailako txirrindularien aurkezpena egingo dute. Salda hartu eta haragi egosi mokaduxoa egiteko parada izango da.✳

||| SANTI LAZKANOREN OMENEZ |||||

25

urteurrena. 1985. urteko otsailaren 3an moto istripuan hil zen Donostian, 38 urterekin. Mende laurdena bete da hil zela.

50

argazki inguru. Santi Lazkanoren txirrindularitza ibilbidea islatzen duten argazkiak ikusgai izango dira hilaren 28an.✳



Santi Lazkanok Ordiziako Saria irabazi zueneko argazkia, 1973. urtean. ||| **Uztarria**

||| BESTERIK |||||

1 Erniarraitzek hamar urte

Azpeitiko, Azkoitiko eta Errezilgo gazteen arteko bertso txapelketaren lehen kanporaketa saioa jokatu da. Guztira 18 gazte arituko dira lehiatzen eta hiru kanporaketa jokatu dira. Finala martxoaren 12an jokatu da, Gaztetxean. Hilaren 14an, berriz, Beñat Lizaso eta Leire Ostolaza bertsolariak bertso sorta **eleganteak** kantatuko dituzte, eguerdiko sokamuturraren ostean hasita.

||| **Eguna.** Otsailak 19 (ostirala). ||| **Ordua.** 22:00 ||| **Tokia.** San Agustinpean edo Gaztetxean ||| **Antolatzailea.** Erniarraitz Bertsozale Elkarteak.

2 Txikon eta Otaegi, lehiatzen

Alex Txikon eta Joseba Otaegi nor baino nor ariko dira. Korri, harria jaso eta aizkoran egin beharko dute. Alde bakoitzak 7.000 euro jarri ditu jokoan.

||| **Eguna.** Otsailak 28 (igandea). ||| **Ordua.** 12:00 ||| **Tokia.** Zezen plazan.

3 Ikasberri K.E. XII. Krosa

Urtarrilaren 10ean egitekoak ziren krosa elurrarengatik bertan behera geratu zen. Luzera desberdineko ibilbideak egingo dituzte.

||| **Eguna.** Otsailak 28 (igandea). ||| **Ordua.** 10:15. ||| **Tokia.**

Goenako kanpa.

||| **Antolatzailea.** Ikasberri K.E.✳

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Kultur eltzea borborka

Herriko kultur informazioa biltzea du helburu nagusi
'www.lapikue.net' atari digitalak. Hainbat atal ditu: agenda, bideoak,
albisteak, argazkiak, elkarrizketak, inkesta...  Ainitze Agirrezabala



Kanpora begira hasi da fruituak ematen Azpeitiko Kultur Mahaia, www.lapikue.net webgunea martxan jarri zuelako, Gabon aurretik.

Kultur Mahaiaren webgunearen xedeetako bat Azpeitiko kultur informazioa biltzea da, informazio interesgarria eman eta plurala izatea.

Ataria Kultur Mahaiko Talde Eragileak kudeatuko du, eta irudiari garrantzia emango diote.

||| INKESTA |||

**Erosketak egiteko
asmorik bai beherapenetan?**

Bai. %60,53.

Ez. %25.

Agian. %14,47.

**||| Oraingo galdera. Txikiteo
Elegante egunean jantziko al
duzu trajea?**

Hala, bideoak eta argazkiak gehituko dituzte webgunean. Informazio atalean, albisteak, iritziak, bideoak, argazki bildumak, elkarrizketa digitalak eta hemerroteka ditu. Beste atal batzuk ere baditu: agenda, inkesta... Bestalde, bere atarian Uztarria-ren webbera esteka du, eta alderantziz.

Aurrera begira, irudien eta testuen bidez webgunean zuzeneko emanaldiak egiteko asmoa ere badute.*

||| EFEMERIDEAK |||||

1570

Olloa hornitzeko inor ez.

Nahi zuen guztiak herriratu eta olio saltzeko baimena ematea erabaki zuten; agintariek aurrez dastatu eta prezioa jarri.

1768

Ogi bakoitza markatzea.

Ogia egiten zuten emakumeei eskatu zitzaion, gero neurriak hartzeko. Horrela, herriak jakingo zuen ogi txarra edo beharreko pisurik gabekoa nork egiten zuen.

1770

Itsasontziak egiteko egur

eskaera. Caracasko Erreal Konpainiaren izenean, J. Nikolas Erauskinen eskatu zuen, baina herriak ez zion baimenik eman.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburu.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak
||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



HITZ GEZIDUNAK

	Aitzinalde		Hegazti txiki		Ipar EH-n, taldea		Errementa- ria		Joan den urtea
	Zirtolari		Buru estalkiak		Oihuka		Ipar EH-n, platerak		
	Lukainka								
	Edukiera unitate								
Ohiturak		*							
Metal zurixka		Herdoila							
							Ukatzeko		Taldea
							Indar berdintasuna		
Asparrengo herrixka					Mailak				
Apoaren lehengusu					Karta				
			Donostiako auzoa					50	
			Sagu, hitz elkarketan					Ipar EH-n, inguru	
Urez betet- riko aska						Eguzkia			
Hori argia						Iridioa			
				Zoru eta pa- reta artean				Radona	
				1				Kontso- nantea	
Mugiarazia									

* Azpeitiko igeri elkartea

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudiko hirien izenak, Gipuzkoako hiri populatuenen izenak



E Z P R E H A T L E B U
 R A E I K I E I R U N R
 M A T Z A S A R P O R A
 I H A E L D E A N R A M
 T S S I I N G O S A O I
 N I A L T E P A L I N S
 Z K R E U S N U H D P I
 A L R U T U O N A I A O
 R I A L E R I N P T E R
 A S D O H I Z R O S T M
 U P I B U P E L Z D E R
 T H A E T X O I O U H L
 Z I R A I S R O G K E I
 E P U R A B I E S U D A

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	Z	A	R	A	I	T	N	A	K	●
N	R	●	K	I	P	●	A	U	R	A	L
A	I	K	E	●	A	K	S	A	R	U	●
L	●	A	R	A	M	A	●	L	E	G	I
K	A	T	O	K	●	O	N	I	G	E	●
●	Z	E	●	O	I	N	I	M	U	L	A
Z	T	A	I	R	A	R	Z	I	●	P	●
A	O	Z	I	R	O	X	T	●	●	●	●
I	R	A	O	X	T	I	D	●	●	●	●
●	A	●	E	●	T	●	A	●	●	●	●

HIZKI ZOPA

E	P	U	R	A	B	I	E	S	U	D	A
I	R	A	I	S	R	O	K	E	I	●	●
L	H	A	E	T	X	O	I	O	U	H	I
E	R	U	P	I	B	U	P	E	L	Z	D
T	M	A	S	D	O	H	I	Z	R	O	S
R	I	A	L	E	R	I	N	P	T	E	R
A	O	A	L	R	U	T	O	N	A	V	A
I	L	K	R	E	U	S	N	U	D	P	I
S	N	S	I	N	G	O	S	A	O	I	●
M	A	V	A	L	D	E	A	N	R	A	●
A	R	A	T	Z	A	S	A	R	P	O	R
R	A	E	I	K	E	R	U	N	●	●	●
U	B	E	R	E	A	T	L	E	●	●	●

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



|||ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Otsailak 22 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

|||ZURE IZEN-ABIZENAK

|||TELEFONO ZENBAKIA

Uztarriaren Urtarrileko Argazki Lehiaketa

ZEIN DA?



IÑAKI ALBERDI 'TXIKIYE' AUTO GIDARIA



IRABAZLEA



Arantxa Labaka Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 113. irabazlea. Larchago upategiko ardoak irabazi ditu sari gisa. Argazkian, Labaka Oihana eta Leire bilobekin, saria jaso ondoren.

ETXEZ ETXEKO
ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago


Larchago kriantza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Koipea

Askok pentsatzen dutenaren aurka, koipea ezinbestekoa da gure eguneroko elikaduran: A, D, E eta K bitaminak bideratzen ditu eta hormonak sortzen ere parte hartzen du. Koipe motak sakonean ari gara ezagutzen eta sarritan entzuten dugu gure kontsultan galdera hau: 'Medikuek orain nolatan diote lehen txarra zen arrain urdina –%5 baino koipe gehiago du– ona edo oso ona dela kolesterola murriztu eta zainetako esklerosia sahiesteko?'.

Ibiliz ari gara bidea egiten... eta Unibertsitatean erakutsi ez zigutena orain ari gara ikasten ikerketen bidez. Abereen koipea da gizakien osasunerako desagokiena eta landare koipeak dira osasun iturriak.

Koipe denek dute kalori berdina jangarria den gramo bakoitzeko, bai oliba olioak, gantzak edo margarinak; eta, koloreak, loditasunak edo jatorriak ez du zer ikusirik. Koipe gramo bakoitzak bederatzi kaloria ematen dizkigu eta eguneroko dieta orekatuan, 2.500 kaloria kontsumitzen dituen 70 kiloko gizon batentzan %35 koipea izan behar du.

Hona hemen adibide gisa, zifra orientagarri batzuk: Intxaurrek, almendrek, urrek eta kakahueteek %65 koipea dute, garbantziek eta kremazko izozkiak %6. Arraultzaren gorringoak %30 eta zuringoak, berriz, ez du koiperik.*

||||||| **julian bereziartua** |||||



XUBAN UZKUDUN 'AIZTITXO' mekanikaria



1. Aberia bilatu ala konpondu. Zailena zer?

Bilatzea. Behin asmatuta, pieza di-da aldatzea da.

2. Azpeitian goma asko erretzen al da? Gazteek mordoa.

3. A8a edo Urraki? Urrakiko kurbak onak dira.

4. Zertan egiten duzue lanik gehiena?

Pneumatikoak aldatzen.

5. Rally-etako errepede bat?

Hondarribikoa. Kurba eta zuloz betetako bidea da.

6. Gurpilak aldatzeko kamioia ala kotxea?

Autoarenak arinagoak dira, errazago dominatzen ditut.

7. Zergatik ofizio hau?

Kotxeen mundua asko gustatzen zait-eta.

8. Gidatu: mantso ala bizi?

Azkar, ondo zapalduta.*

🔗 Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jone de Arretxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

PEUGEOT

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

lora-etxea ...

Kimubat

ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

domusa

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain

Larmaldiak
943-15 16 40

ALBARTARI KLINIKA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



**AZPEITIKO ERAKUSLEIHO
HANDIENA** JARRI PUBLIZITATEA UZTARRIAN

uztarria

hant AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA



Festarako beti prest

Erdikalean zuen jostailu dendan
gogotik egin du lana Marirox
Azkuek urteetan. Festarako
ere alferkeriarik ez du izan
eta hamaika pasadizo ditu.

 Ainitze Agirrezabala

Fin asko etorri da Uztarria-
ren egoitzara, esandako ordurako zuzen. Es-
kubiko eskuan makulua lagun, ezkerrekoare-
kin erosketa karroari bultzaka, 'hemen al
duzue konfesatokia?' esanaz egin du diosa-
la. Zalabardera hutsa da. Kontutan hasi eta
emari ederrekoa; mingainean erdoilik gabea.
Bere txikitasunean, emakume handia da Ma-
rirox Azkue Alberdi (Azpeitia, 1931).

Azpeitiko ume askoren ilusioak betetzeko
gogotik egin du lana Azkuek, Erdi kalean be-
rogeita hamar urte inguruan gobernatu

duen jostailu dendan. Dendari izateagatik ez
ezik, festarako izan duen zaletasunagatik
egin da ezaguna Azkue. "Errege garaia garai
txarra izaten zen, lan asko izaten genuen den-
dan. Baina, behin haiek pasata, sansebastia-
netako diskoa jartzen nuen dendan, festa
alaitze aldera. Haiek azkar pasa eta karnaba-
lak derrepentean ailegatzen ziren. Neu hala-
moduzkoa izan, saltsera, eta dendan lanean
egoteko ere mozorrotu egiten nintzen".

Sansebastianak bukatu eta karnabalak
gerturatu ahala, "zer jantziko dut aurten, zer

jantziko dut aurten..."; buruari bueltaka hasten
zela kontatu du. "Eskalez-edo ofizioren bate-
ko pertsonaiaz jautzen nintzen beti. Behin
erreginaz edo printzesaz mozorrotzeko esan
zidan batek, baina ezetz erantzun nion, nik ez
nekiela-eta elegante ibiltzen".

Paperean sartuta

Mozorrotzen zena mozorrotzen zela, "perso-
naiaren paperean" sartuko zen Azkue: "Peri-
ko Moxalaz mozorrotu nintzen behin, Joxe
arotzak egindako gurpil eta guzti. Denek 'han



1. Sansebastianetan beti apaintzen zuen dendako erakusleihoa. **2.** Marirox Azkue, erdian, Marikarmen Zelaia eta Lurdes Altzartekin, Erdikaleko dendan. **3.** Karnabal aurreko asteburuan, kaldereroetan, zingaraz jantzita eta umez inguratuta. **4.** Kafe alea ehotzeko makina hartu eta irrati-kasetean Juan Valdesen *Paso la vida moliendo café* abestia jarrita atera zen, 1991. urtean.



Marirox! esaten zuten eta ni isilik. 'Nazkante horrek ez din hitz egiten!' zioten. Dena bukatzean esan nien: 'Parrokiko Periko Moxalak zeini hitz egiten zion?' Pertsonaiaren barruan sartuta egotera, isilik egon behar dun".

Beste hainbat moztorrekin, berriz, garbo handiz jardunean aritu zen. "Argiñanorena egin nuenean, aitzo handi bat eta kazola mordo atera nituen kalera. Hura bezala, zorakeriak egin eta egin aritu nintzen. Etxetik egositako pasta atera nuen ikusleen artean banatzeko". Graziarik ez zitzaion faltako. "Beste urte batean txorroskileroz jantzi nintzen. Txispak eta dena ateratzen zituen gurpil handi bat inguratu nuen eta 'Afilador! Afilo cuchillos, navajas, tijeras! Firibiiii!', oihiu egiten nuen.

Astelehen karnabalean ez ezik, astearte goizean "enkarguak egitera moztortuta irte-tea asko gustatzen" zitzaion Azkueri. "Bazen señora elegante bat, izatez tolosarra, baina Azpeitian bizi zena. Mantelina, betaurrekoak, bitxiak, koilara eta pultsera pila ibiltzen zituen soinean. Ba, karnabal batzutan *de señora elegante* jantzi nintzen. Kaldereroen kate pila jarri eta mantelina handi bat jantzi nuen. Ez nuen, ordea, berekin topo egin kalean".

Moztortuta inork ezagutzen ez zuela aprobeztatzu, ezagunengana eta egunero erosketak egiten zituen dendetara joaten zen. "Gona luze bat jantzi, gomazko masailak jarri eta hala-moduzko beste mantoi batean bilduta andare bat hartu eta errumaniarrez

Attitte Doroteo

|||Txikitatik izan du festarako afana Azkuek. "Parrandarako zaletasuna attitterengandik etorri zaidala uste dut. Attitte Doroteo, hura bai zela *flamenkoa*. Intxantea zen", dio.

Marirox Azkueren ama alaba bakarra zen eta gurasoen etxera ezkondu zen. Zortzi seme alaba izan zituen; hiru neska eta bost mutil. Senideetan hirugarrena da Azkue. "Hamahiru urte nituela geratu ginen aita gabe, baina etxean attitte genuen eta luzaroan bizi izan zen". Gaur egun anaia eta ahizparekin bizi da, bere jaiotetxean.

Aitonaren babesean hazi zen Marirox. "Garai batean Cine Luminor zegoen orain BM den lekuan. Zinemako sarrera pezeta bat pasatxo kostatzen zen eta dirua lortzeko attitteri esaten nion: 'attitte, errezatuko al dugu errosarioa?', eta hamar zentimo ematen zizkidan aldiko. Hurrengo egunean berdin. Kobratzen bagenuen zinemara joaten ginen, bestela ez".

Azkuek ondo gogoan du, karnabal batzutan, ganadu gaitza zela-eta ez zutela utzi zezena ateratzen. "Attitte ganadu eta arkume larruen negozioan aritzen zen. Ganadu larru bat inguratu du, asto bati ipini dio, pipar mina sartu dio ipurditik eta hura zalaparta asto hark atera zuena. 'Badatorrela, badatorrela!', zioen jendeak, zeharo aztoratuta.

mozorrotu nintzen. Denei eskean aritu nintzen eta denek ematen zidaten zerbait. Erdikaleko Lizaso harategira joan eta 'rumana, rumana' esanaz eskua luzatzen nuen. 'No esta el jefe!', erantzuten zidan. Nik tematuta jarraitzen nuen. Halako batean, bosgarren saiakeran-edo, masailak kendu nituen. 'Nazkante zikin hori! Hi al hitzanan!', esan zidan. Zeukan borondatea ikusi nuela eta gehiago harategi hartara ez nintzela joango esan nion".

Umetatik lanean

Neska koskorra zela hasi zen lanean Marirox. "Beharko hasi. Udaletxe azpiko arkupetan artilea, abarka sokak eta mantarra saltzen zuen attittek eta hari laguntzera joaten nintzen".

Jostailu dendako negozioari heldu aurretik, gainera, Gibertenen aritu zen lanean: "Senitartekoak ginen eta azoka eta feria zen egunetan laguntzera joateko eskatu zidan osaba Bixentek, eta hala hasi nintzen". Gero, osabak erretiroa hartu behar zuela eta Giberteko lokala hiru zatitan banatu zuten eta jostailuen negozioarekin jarraitzea eskaini zioten Azkueri: "Hainbeste urtetan tratuan, laster ezagutzen duzu jendea. Pianoa zeinek jotzen duen ere bai. Do, re, mi, fa, sol. Dagoen lekutik hartu eta poltsikoan sartu".

Kotxeko karneta atera ez izanaren pena du Azkuek: "Dendan lekuri ez eta biltegia etxean genuen. Bizikletaren parrillan jostailuak jarri eta eramaten nituen dendara".*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (OTSAILA)

EGUNEZ

1-6-7-18-20	2-8-13-14-19-24	3-9-12-15-21-25
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811 350	943 811 949	943 815 974

GAUEZ

8-9-10-11-12-13-14-22-23-24-25-26-27-28	1-6-7-19	2-3-15-20-21
Eizagirre (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811 274	943 851 966	943 850 660

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 24an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ SUKALDEKO OLIOA.

Urola-Erdiko mankomunitateak edukiontzi berriak jarri ditu kalean, sukaldeko olio erabilia jasotzeko. Gris kolorekoak dira kontainerrak eta olioak plastikozko ontzietan uztea eskatzen da.

4-10-16-22-27-28	5-11-17-23-26
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811 274	943 080 258

4-16-17	5-18
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 852 989	943 851 235

||| GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

MARIA PEREZ

Västeras (Suedia)

“Edonori gomendatzeko esperientzia dun”

Itzulpengintza eta interpretazioko bigarren maila egitera joan da. Perezek dio esperientzia “ona” dela. 📎 Ainitze Agirrezabala

Nolatan hago Suedian?

Ingelesa hobetzea niran helburu. Hasieran ez niran Suedia aukeratu, baina lekurik gabe geratu nindunan eta plaza libreen artean aukerarik egokiena Suedia iruditu zitzaidan.

Suediatik zer gustatu zain gehiena?

Dena oso ondo antolatzen diten. Nazioarteko ikasleoi gauzak asko errazten zizkiguten eta unibertsitateko irakasleek gertutasun handia erakutsi ziguten. Hasierako astean ongietorri afaria egin geninan, herria ezagutzeko irteera eta Estokolmora eta Helsinkira ibilaldiak ere egin dizkinagu. Horrela, beste ikasleak ezagutzeko aukera izan niran.

Eta, gutxien gustatu zainana?

Hotza eta iluntasuna. Baina, nik aukeratu niran hona etortzea eta ezin naun horretaz kexatu. Gehien harritu nauen gauzetako bat tabernak 02:00etan ixten ditiztenela dun. Alkoholaren salmenta ere desberdina dun hemen. Suedian 3.5 gradutik gorako alcoholdun edariak *Systembolaget* dendetan bakarrik saltzen dituzten eta 20 urte behar ditun erosteko. Alkohola %30 garestiago dun hemen.

Nolakoak ditun suediarrek?

Orokorrean oso zuzenak. Arauak diren bezala betetzen dituzten. Kurtso hasieran irakasleek jakinarazi zigutenan, suediar batek norbait tranpatan ikusiz gero irakasleari esatea zuzenala arruntena eta, kontuz ibiltzeko. Gauetan polizia ibiltzen dun eta oso zorrotzak ditun. Batek baino gehiagok pasa din gaua kalabozan, kalean pixa egiteagatik. Garrantzia handia ematen zien puntualtasunari. Suedian norbait ezagutzean bi muxu eman ordez eskua ematen dun, edo agian ezer ez eta arraroa egiten zaidan. Bestalde, ohikoa dun etxera sartzean sarreran zapatak kentzea.

Zer moduz horko eguraldiarekin?

Hotza eta iluntasuna hitunan hona etorriurretik nire kezka handienak. Hotz handia zagon, -20º inguru egin izan ditin. Iluntasuna, ordea, hotza baino tristeagoa dun. Abenduan 15:30etan iluntzen zinan. Eguna beste era batera antolatzen dun, goizago jaikiz eta argi dauden orduak aprobetxatuz. Ikasketak kanpoan egiteko aukera duen jendea etxetik kanpora irtetera animatuko ninake. Edonori gomendatzeko esperientzia dun.✖



1

1. Svartan erreka –erreka beltza– atzean duela.
2. Estokolmora bisita. Hango traje tipikoa jantzita du giak. 3. Mälaren lagora bidean.

2.680 kilometrora dago Västeras.



2



3

Tximinokeriak

Etorri dira ikertzaileak. Hartu sei tximino eta kaiolan sartu dituzte. Kartzela txikiaren erdian, eskailera bat, sabaiaren zintzilik jarri duten platano sorta batetik jan ahal izateko moduan. Laster, tximinoetako bat abiatu da platanoetara, eta han non ur izotzua bota dieten denei, eta etsi egin du tximino hark. Saiatu da berriz, eta berriz ur hotza goitik behera, denei. Saiatu da bata, saiatu da bestea, ur hotza beti burutik behera, sei tximinoei... Tximinoak saiatu bakoitzean, ur izotzua jasotzen dute. Azkenean, tximino batek saiatzera egin duenean, haren lagunek beraiek galarazi diote eskaileretan gora egin dezan.

Horraingo helduta, barruko tximinoetako bat atera eta ordu arte esperientzian parte hartu ez duen beste bat sartu dute. Kaiolara sartu eta berehala, eskaileretara hurreratu da sartu berria, gorako asmotan. Ez alferrik. Beraren lagunek galarazi diote, ur hotza jasoko duten beldurrez. Tximino hark ez du ezer ulertzen, zergatik galarazten ote dioten platanoak jatera igotzea, baina behin eta berriz eta askotan saiatu ondoren, jakin du hobe duela eskailerara ez hurreratu, ondoko tximinoek joko dutela bestela.

Orduan, esperientziari ekin dioten beste tximinoetako bat atera dute, eta batere berririk ez duen beste tximino bat sartu. Aurrekoak bezala jokatu du honek, platanoetara abiatu da zuzen, eta tximinoak platanoak hartzen saiatzen den orduko, ondora etortzen zaizkio besteak, asmoa galarazi nahian.

Kontua da, esperientziaren erdian sartu den bigarren tximinoak ere aurrekoak bezain gogotik saiatu dela azkena sartu denari platanoetara bidea galarazten, nahiz eta ez izan horretarako arrazoirik, ez daki zergatik, behin ere ez du-eta ur hotzik jaso. Haren iritziz, eskailerara hurreratzeari galarazita dago, besterik gabe.

Banaka-banaka, esperientziari ekin dioten tximino guztiak ordezkatu dituzte. Hasierako-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Haien arrazoiak, edo logika eta arrazoi faltaz pentsatuko bagenu, jokabide tximinoak bistaratuko genuke

ak atera dituzte poliki-poliki, eta ur izotzuaren berririk ez dutenak dira orain kaiola barruan.


Hasierako azken tximinoa ordezkatu dute, baina, kaiola barruan geratu direnek berdin-berdin jokatzen segitu dute, nahiz eta inork ez izan benetako arrazoirik, inork jakin ez zergatik, inork ez du-eta ur izotzuaren albisterik. Baina eginak daude legea eta araua: "Galarazita dago eskaileran gora igotzea. Saiatzen denak gainerakoen jipoia jasotzeko arrisku gorria du".

Jokabide bera

Inondik ere, egia izango da batzuetan tximinoak gizakiak bezala jokatzen duela. Edo, litekeena, gizakiak jokatzea zenbaitetan tximinoak jokatuko lukeen moduan...

Edo, berdin, ez dakigula indarrean dauden lege askoren jatorria, betetzea dagokigula besterik. Haien arrazoiak, edo arrazoi eta logika faltaz pentsatuko bagenu, gure jokabide tximinoak bistaratuko litzateke.

Asko ez pentsatuta hobe. Errazago da tximino jokatzea.✘



Xanti.R



iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hartz klinika

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com

AURREMATRIKULAZIOA

otsailaren 1etik 12ra

**Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
DBH**

**IRAKASKUNTZA
0 URTETIK 20 URTERA**

kalitatea zure zerbitzura



HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA



Euskal Herria, 50
Tel.: 943 81 26 97
Faxa: 943 15 08 30
012320aa@hezkuntza.net

ZAINTZA ZERBITZUA
- Haur Hezkuntzakoentzat

BI JANGELA
- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

GARRAIOA
- Autobus bakoitza bere zaintzailearekin



DBH, BATXILERGOAK ETA HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
Tel.: 943 15 02 28
Faxa: 943 81 66 20
azpeitia@urola.org

DBH

BATXILERGOAK
- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Arotzerien eta altzarien
fabrikazio industrialak
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Administrazio eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren
programazioa*



Euro SN 2000
Euro School Net 2000



*DBHOn



ACER EXTENSA 5235



- Prozesadorea: Intel M900 a 2.2 Ghz
- RAM Memoria 2 GB
- Disko gogorra: 250 GB
- Pantaila: LED, TFT 15'6" HD
- Sistema Eragilea: Windows 7 Home Premium
- Zenbakidun teklatura
- WebCam Crystal Eye
- Bateria: 6 zelda 2.2

399 euro
b.e.z. barne

MERKEALDIAK
%30 %50



Santi Lazkano Kirolak